



Barrero Dakar-rera

Ille onetako amaseian emeretzi embarkaziñoek urten dabe Bermeo-ko portutik Dakar-rerantz. Irureun ta berrogetamar arraintzale, euren kapellau ta guzti, negu osoan, Dakar aldeko ur epeletan arraintzuan ibilteko.

Leberrak dira gure itxasgizonak. Egunean baiño egunean embarkaziño aundiagoak egiten diardue etentzaka. Ezin geratu atzean gaur egunean munduak darabillen ibilkeran. Joan zirean betiko aintxiñako txalupak. Betoiz orain berreun, irureun zaldiko makiñak, asagora joateko urte osoan arraiñetan ibilteko. Iges egin deiogun neguan euskal itxaso erruki bakoari.

Bermeo-ko portua, txiki ta txarra da neguan ainbeste untzirentzat. Erresakea dagoanean latzak eta baltzak pasetan ditue gau ta egun arraintzaleak txikotak eta kateak ausi ez daitezkan, untziak alkarrereri joka kalte egin ez deioren edo korrontak eraginda atxen kontra zatitu ez daitezkan.

Orrezaz gaiñera gure mandako itxaso onetan ez dago zer egiñik, ez dago zer irabazirik neguan. Urrunera joan bear, edonora, arraiña agertzen dan lekura, dirua irabazteko eta —askok— zorrak pagetako.

Armadore asko zorpean bizi dira, eta ez dauke deskantsurik, arik-eta kredituz egiñiko euren embarkaziño mandoak ordaindu artean. Eta neguan gure portuetan, ezer irabazi barik eta asko galdurik, ez egotearren, prest dagoz Dakar-rera zein Fernando Poo-ra zein igetar-giko trankilidade itxasora arraiñetan joateko, naizta orretarako milla neke ta naigabe igaro bear.

Baiña arraintzale guztiak ez dagoz gertu, orrenbeste ezbear ta kalamidade pasetako. Tostarteko askok naiago izan dabe gitxitxuago irabazi ta etxean geratu, Dakar-reko puntan sekulako penak igaro baiño armadoreak gero ta aberatsago egiten direan bitartean, eurak —tostartekoak— beti nekezale lotuko dira-ta.

Baiña eurak libre itxi dituen tostak, laster bete dira. Nortzukaz? Erdaldunakaz. Gente barria sartu da Bermeo-ko untzietan. Verbetea diferentea daukona. Bizikera diferentea. Mentalidade diferentea. Kristiñau modu diferentea.

Danon vistan dago naste-borraste orretatik Bermeo-ri etorri leitekion kaltea. Askoz obeto litzake, euskal arraiñuntzietan euskaldunak bakarrik joango balira. Ori ondo dakie Bermeotarrak. Baiña ez da naikoa jakitea. Aurrerantzerako alegiña egin bear leukee, problema ori bear dan moduan ebazteko.

Obatu daitezala Dakar-rerako kondiziñoak; goratu daitela arraiñaren prezioa; bigundu ango gau ta eguneko ibilkera gogorra; geitu untzi barruko komodidadeak; bapeztu arraintzaleen arteko asarreak, burrukak eta salvajejeriak —eta orduan joango dira pozik Dakar-rera euskaldunak.

Orrek aolantxe izan bear dau. Eta aolantxe izanarte, ez leukee sosegurik euki bear Bermeo-ko arraintzaleak —batez-bere armadoreak—, euren erresponsabilidadea auzi onetan aundia da-ta, Jaungoikoaren, soziedadearen eta aberriaren aurrean.

«Loramendi», Fr. Joakin Bedoña-koaren gorazarrez Euskaltzaindiak antolatutako literatura-sariketaren erabakia

Donostian bildurik Aita Joakin Bedoña-koaren gorazarrez jarri zan literatura-sariketarako Euskaltzaindiak izendatu zuen batzarrea, ao batez erabaki da:

Poesia. Lendabiziko saria, bi milla pesetakoa, "Maldan behera" poemari ematea. Egillea, Gabriel Aresti (Bilbao); bigarrena, milla pesetakoa. "Lelo xamurrak" Fr. Victoriano Gandiaga-k (Arantzazu) egindakoari; bosteun pesetako sari bi urrengo jaun auk bialdu dituzten poesiai: Fernando Artola "Bordari" (Ondarrabia) eta Aita Policarpo Iraizoz-koa (Erroma).

Itz lauz. Lendabiziko saria, milla pesetakoa, "Loramendi eta bere garaiko euskal-literaturaz" egindako lanari. Egillea, Luis Jauregui jauna (Zarautz); bigarren saria, bosteun pesetakoa, Aita Julian Igorre-koak, gai bera duela, bialdutako lanari.

Teatroa. Lendabiziko saria, bi milla ta bosteun pesetakoa, "Kanpaien atsekabez" titulu-dun lanari, Eusebio Erquiaga-k (Bilbao) bialdua; bigarrena, milla ta bosteun pesetakoa, "Leniz-ko alaba", Jose Antonio Arcocha Martija-k (Ondarroa) bialdutako lanari.

Batzarreak bere poz aundia jakinerazi nai du artu diran lan ugari eta ederrengatik, batez ere poesia arloan. Irurogeitik gora dira. Sarituez gaiñera uste du aipamen berezi bat merezi dutela eurrengo poesia auk: "Izar eta odei" Antonio Bilbao (Morga), "Sei olerki" Jaime Querexeta (Elorrio), "Lizardi-renean" Juan Ignacio Goicoechea (Tolosa), "Egun txintatik arratseraño" A. Eusebio Igarza, O.S.B. (Lazkano), "Bedoña-rako osto bikoitza" Eusebio Erquiaga (Bilbao); eta baita teatro lan bi auk: "Bertsolari sariketa" eta "Berpizkunde goizean", biak Manuel Ziarsolo-renak (Bilbao).

Donostian, 1959 irailaren 13-an. Firmatzaileak: Jose Maria Lojendio, Antonio Arrue, Aingeru Irigaray eta Luis Michelena.



POLONIA. Irailaren (setembrearen) 25-ean, Varsovia-ko Santa Ana eleizan, Wyszynski Kardenalak esan dau sermoi baten, barrero Polonia-ko Eleizearentzat egunak illunduten asi direala. Gobernua, bere aldetik, propaganda gogorra asi da egiten kristiñau eskola ta kristiñau devoziñoen kontra.

Joan dan agostuan, desaparezidu egin zan eleiza katedralean San Ladislao, Varsovia-ko patriaren erikiak. Polziaren alegiñak ez eben erresultadurik euki. Onegaz bateratsu, periodikoak erlegiñoaren kontra verba egiten asi zirean, eta barragarri ipinten eben erlikien kultura. Olako profanaziñoak Varsovia-ko beste eleiza batzutan-bere izan dira.

Orrezaz gaiñera, oraintsurengo asi da gobernua medio guztiak erabilten, eskoletako kristiñau irakaskuntzea kentzeko edo gitxituteko. Igaz eun ta ogei zirean erlegiñoa irakasten ez eben eskolak; aurten barriz, urritik asita, milla izango dira.

CAMERUN. Afrika-ko lurralde onek, datorren urtarrillean (1960-ko eneruan) lortuko dau bere independentzia. Baiña, antza danez, Camerundarrak ez dabe euren askatasuna bakan jaritxi gura. Egunean baiño egunean aundiagoak dira zurien kontrako atakeak. Persekuziño onetan ez dabe errespetatu Eleiza Katolikoa. Agostuaren 30-ean misifñolari bat il eben, eta irailaren (setembrearen) 6-an katetista bat.

Camerun-en 700.000 katoliko bizi dira. Propaganda itzala egiten da euren artean erlegiñoaren kontra. "Itxi cizue domekea —esaten deutse paganoak—, egun ori zurien erlegiñoaren eguna da-ta. Misifñolariak independentziaren kontra dagoz. Dirua irabaztearren aginduten deutsuee eleizazko ezkontzea. Ez eioezue siñistu, engañatzaille utsak dira-ta." Eta olako beste guzur asko.

Kristiñauak artekadu dabilta, propaganda orren kontra iñor joaten bada, traidorea ei data. Bata bestearen bildurra dauke, eta alkarren arteko konfiantzea galtzen asi dira.

Eta biar?

Sazerdote beargiñak ez dabe geiago lan egingo, lengo lez, fabriketan. Baiña Eleizeak ez deutso orregaitik itziko obreruen arteko apostoladuari.

Langilleen arteko Misiñoa

Sede Santuak, sazerdote beargiñen kontrako dokumentuan bertan, bidea erakusten dau, aurrerantzean lantegietan apostoladua bear dan moduan egiteko. Dokumentu orretan, Pizzardo Kardenalak Langilleen arteko Misiñoa aituten dau eta bere aprobaziño ta arnasea emoten deutso. Ori dala-ta, orain arteko «misiño zonak» ugaritu egingo dira, eta obispoen zuzendaritzapean koordinatu ta indartu egingo da eleizgizonen eta laikoen apostoladua, eta lortu egingo da langilleakaz zerikusia dauken osterantzeko organismoen kolaboraziñoa. Orrezaz gaiñera, lengo lez jarraituko dabe lan egiten teologoen, erreligiosoen eta laikoen komisiño nazionalak.

Aziño Katolikoa

Pizzardo Kardenalak bere kartan diño ze, «sazerdote langilleen orde, obreruen artean beste sazerdote batzuk apostoladua egin daie-la —sazerdote zintzoak, asmo orretarako ondo preparatuak—, eta zeregin orretan laikoak lagundu deioela.» Au esakeran, Kardenalak begien aurrean euki dau antza Langilleen arteko Aziño Katolikoa, batez-bere Kristiñau Gazte Langilleen movimentua, erderaz JOC (Juventud Obrera Cristiana) deritzona. Ogetamar urte baiño geiago dira, gazteen movimentu au sortu zala; eta laster amar urte izango dira, gizonen artean-bere

berorren antzeko beste movimentu bat asi dala. Aziño Katolikoaren bitartez, Eleizea presente egongo da fabriketako obreruen artean, eta gero ta geiago izango dira sazerdoteak, lantegietara joan barik, laikoen alboan asesore ta formatzaille lez jardungo dabenak.

Institutu Sekularrak

Baiña Sede Santua oraindiño aurrerago doa. Sortu daitezala gura dau institutu sekularrak, sazerdoteak eta laikoak, erreglamentu baten bitartez alkartuta, langilleen artean apostoladua egin daien.

Institutu sekularrak, Eleizeak aprobaturiko alkartasun batzuk dira. Sozioak, santutasuna lortuteko eta apostoladua obeto egiteko, erreligiosoen iru votuak egiten ditue. Euren arteko geienak laikoak dira; baiña ba-dagoz abadeak-bere. Izatez, erreligiosoak dira, geienetan bakotza bere etxean biziarren eta itxuraz edozein sekular dezente lez agertuarren.

Institu sekularrak «perfeziñoako estadien» familian sartzen dira, eta Erromako Erreligiosoen Kongregaziñoaren menpean dagoz. Sozioen asmo printzipala, santutasuna da. Jaungoikoaren deiez, munduan geratuten dira, komentura joan barik, eta kontseju evangelikoak pratiketako alegiña egiten dabe.

Baiña asmo orren alboan, apostoladua egiteko ardura aundia dauke. Pio XII-garrenak Primo Feliciter motu propioan diñoan lez, institutu sekularrak guztiz egokiak dira, Eleizearen presentzia edonora eroateko eta apostoladua egiteko. Santutasunezko bizimoduaren ejempluagaz eta eguneroko artu-emon sakonaren indarragaz, birkristiñautu benetan familiak, bizibideak eta soziedadea; egin apostoladua milla modutara; eroan

*Kristoren testimoniñoa, abadeak eta frai-
lleak ezin leikeen lekuetara: orreexek dira
institutu sekularren eginkizunak. Eta apos-
toladu au munduan egingo dabe eta —esa-
tea lez— munduaren bitartez, apostoladuzko
movimentu au mundutik bertatik dator-da.*

*Institutu sekularrak aspaldikoak izana-
rren, Eleizearen bizitza ofizialean 1947-ga-
rren urtean sartu zirean Provida Mater
Ecclesia Konstituziño Apostolikoaeren bitar-*

*tez. Arrezkero, berrogetamar bat institutu
aprobatu izan dira, zein Aita Santuaren zein
obispo jaunen onespenagaz. Eta beste eun-
ta berrogetamarrek gitxi gorabeera eskatuta
dauke aprobaziñoa.*

*Institutu sekularrak mesede aundia egin
deutse oraiñarte Eleizeari; eta duda barik,
aurrerantzean, Frantzian batez-bere, ugaritu
egingo dira, fabriketako langilleen artean
kristiñau fede ta bizimodua zabaltzeko.*

Itxas Apostoladuko XIII Kongresu Internazionala

Urriko leengo egunetan, batetik laura, Vigo-n ospatu izan da Itxas Apostoladuko XIII-garren Kongresu Internazionala.

Batzar importante orretan, Kardenal Marcello Mimmi buru zala, 352 lagun batu dira —amasci naziñooko gizonak: abade, fraille, seminarista, itxasgizon— danok batera itxas bizitzako problema moralak eta sozialak estudietako eta euren soluziño ego-
kia aurkituteko.

Estudio onetan, Frantzia, Belgika, Holanda ta Ingalterra-ko delegaduak artu eben parterik aundiena. Eurak eratu zituen ikastaldi geienak, eta euren eritxiak euki eben indar geien azken erabagietan.

Españiako delegaduen artean, euskaidunak izan zirean urtenenak. An batu giñean ogeiren bat, Bizkaia, Gipuzkoa ta Arabakoak.

Kongresuaren organizaziño osoa, Aita Xavier de Esquibel-en ardurapean egon zan. Valio andiko gizona, Busturian jaioa. Bera da, Espaiña guztirako, Itxas Apostoladuko sekretario ejekutivoa. Estudio batzarretan, bera izan zan espainiolen artean errespon-
tsabilidade g... eruki ebana. Interes aun-


dikoa izan zan bere konferentzia. Argi ta garbi erakutsi zituan arraintzaleen problema espiritualak eta sozialak, eta guztiz ondo azaldu ebazan erremedio bideak.

Aita Esquibel-en ustez, Espaiñian beñiñk bein, laguntasun premiña geiago dauke arraintzaleak, mariñoak baiño. Txarrago dagozalako eta askoz geiago direalako. Ogei milla mariño dagoz Espaiñian; arraintzaleak oster, berreun milla. Egia da, espaiñol mariñoak munduko gitxien irabazten dabena; baiña egiagoa da, euskaldun arraintzaleak izan ezik, beste guztiak ikaragarriko miseria espiritual eta sozialean bizi direana.

Españiako mariñoen egokerea Aita Francisco Otamendi-k azaldu eban. Problema ekonomikoetan sartu barik, problema espiritualak bakarrrik ikutu zituan. Bere eritxiz, oraindiño tertzioz gagoz, mariñoen kristiñautasuna salvetako. Orretarako, kristiñau militantek egon bear leukee itxasoutzi guztietan, Itxas Apostoladuko eleizgizoneri lagunduteko.

Aita Otamendi-k esperientzia aundia-
gaz verba egin eban; ondo ezagututen ditu
berak mariñoak; urteak daroaz lan egiten

Bilbaoko portuan Aita Antonio Uriarte-gaz batera, eta sarritan egin dauz itxasozko joan-etorriak, mariñoak eurak eskatuta. «Itxasgizonen artean kristiñau militanteak bazeunkez, Espaiña izango litzake duda barrik munduko naziñorik katolikoena»: auxe esan euskun delegadu frantses batek, Aita Otamendi-ren verbaldia entzunda.



Euskaldun laikoak-bere ondo bete eben euren eginkizuna. Terranova-ko makaillaozaleetan ibilitako arraintzale bik, argi ta garbi erakutsi zituen euren bearrizan garrazak, eta bein ta barriro eskatu eben Itxas Apostoladuren laguntziñoa. Beste aldetik, Donostiko gazte batek, Kristiñau Itxas Gaztediaren izenean, ederto verba egin eban,

eta batzar osoaren txalo artean azaldu eban Euskalerrian arraintzaleen alde egiten dana.

Bermeo-ren izena sarritan entzun zan Kongresuan, eta danak enteratu zirean Izaro-ko Kurutzearen proiektuaz. Asmo eder ori zabaltzeko, Vigo-ra etorri zan Tomas Arana, Bermeo-ko Izaro Itxas Klub-eko presidentea, eta kongresista guztiak ikusi eben

isla orretan egingo dan kurutzearen maketa ederra.

Amaituteko esan bear dogu, Kongresuak guztiz ondo urten ebara, eta Itxas Apostoladuak batzar internazional onetatik frutu ugariak atarako dituala.

Berriatua

GABONALDEKO IPUIÑA

Gabonjai aurregunak zirean; eta gau atan, beti betiko adiskideak Artekale-ko Juliana-ren trabenako zokondo baztertxuan batu zireanean, bakotxak bere artobero usaindu arrokeriak jaurtiten inarduan. Katxu zapatariak, eskatuta eukazan Kanal-eko ostrarik ederrenak, eia konpota egitako Arteaga-ko gabon mañariak. Paulo herradoreak Biibotik dkarriako makaillaorik zuri, lepo-baltz onena etxean eukan. Nikolas Barrenka-le-koak, Bermeo-ra eguneko besigu presko pareta eskatuta eukan. Jose, San Juan-ko sakristauak, eskaratzeko eskapolotpean azitako oila-koak, kapoirik gurienari-bere inbidiarik ez eutsenak, an eukazan oraindiño bizi bizirik, eta bai, udagoienean Kosnoa mendiko arri artean artutako marraskillo (karakol) ontxuak bere, zai artean ondo zainduta.


Gure Atxirika ixillik egoan; eta beste guztiak euren aokadak amaitu zituezanean, geldiro geldiro eta aoa pizkat biribilduaz, abotsak zan baiño lodiago urten eian, esan eutsen: «Besteak bere, etxagozak ba gosez ilteko ustean. Zuzen bere, emendik urtetan dogunean, or ikusi zeinkie gure etxeko leiotik dingillizka ezaugarri bat; eta ori, gazonazkan daukaguzan saieski, txarri solomo eta abar aitatu barik.»

Gure etxea —Atxirika-ren etxea— trabenatik aurrez aurre egoan; eta bakotxa bere etxera joateko, or amaikak inguruan, abiatu zireanean, an egoan, eta guztiak ikusi eben, lenengo oiñeko leiotik dingillizka, oillasko lumatu barri, zuri, guri, eder eder bat.

Ezer alkarrereri esan barik, kiñu eta ziñu artean, laster erabagi eben Atxirika-ren egaz-

7-garren orrialdera

ZINEMATOGRAFIA



Urriaren 21-ean ikusi da lenengoz Paris-en «*Tu es Pierre*» (Pedro zara zu) pelikulea. Egilea: Productions du Parvis. Direktorea: Philippe Agostini. Medida luzekoa da. Venezia-ko azken ziñe jaian presentatua.

1958-ko Pazko egunean Erroma-ko San Pedro plazea ganezka egoan. Ia 300.000 persona Pio XII-garrenaren Pazko deia entzuten. Orduntxe asi eban Agostini-k bere pelikulea. San Pedro-ren jarraitzalle ta Kristoren ordezkoe ziran Aita Santuen ixtoria azaldu gura euskun. Eta momentu axe eder ederra zan bere pelikulari asiorea emoteko.

Agostini-k, Pio XII eukan bere filmaren protagonistatzat. Baiña pelikulea amaitu orduko, Pio XII il egin zan. Bere jarraitzaillea —Pedro'ren jarraitzaillea— beste bat zan orain: Juan XXIII. Ziñe zintea jarraitu gura bacban, beste bide bat artu bearrean zan Agostini.

Baiña, derrigorreko bide barri au ondo etorri da «*Tu es Pierre*» egiteko. Ara or Aita Santuen ixtori zati polita: Pio XII il da; Pedroren jarraitzailleak ostera, czтира amaitu. Oraingoan Juan XXIII-garrena dogu. Eta olantxe izan da Pedro il zanetik. Ganera, Pio XII-garrenaren illetak, konkla-beak eta Juan XXIII-garrenaren koronaziñoak, aunditasun berezia emoten deutse Agostini-ren dokumentalari.

Baiña noiztik jatorku Aita Santuen ixtori miragarri eder au?

Agostini-k Palestina-ra garoaz. Antxe ikusiko ditugu, Kristoren bizitzako ixtoriz beterik, Jordan, Tiberiades-ko itxaso amurrutua, Kana-ko eztegu egun bat. Gero Zesarea Philipo-rena; beiñola ementxe esan eutsan Kristok Pedrori: «Arria zara zu, eta arri onen gainean jasoko dot nik neure Eleizea.» Geroago Pedro Erromara joan zan. An, bera ta orduko kristiñauak bizi izan ziran katakumbak azaltzen deuskuz. Baiña azkenean Pedro il eben, eta jarraitzalle bat izan eban. Eta olantxe gaur arte.

Pelikula onen zati batzuk, Juan XXIII-ak bear egiten dauen gelan atara dabez. Aita Santuak pozik emon eutsen lan au egiteko eskubidea. Alderdi onetan ikusi daiegu. Aita Santuak zelan asten dauzan bere eguneroko zereginiak.

Juan XXIII-garrenak, Vatikanon ikusi dau pelikula au, eta zorionik beroenak emon deutsez bere direktore Philippe Agostini-ri eta egilleak diran, Productions Parvis-koeri. Eta izan be, «*Tu es Pierre*», informaziñozko pelikula ederra dozu. Teknika aldetik be, meritu aundiak ditu; baiña batez be katoliko aldetik daukozan erakutsi ederrak emoten deutse bere aunditasuna. Guztiok ikusi bear genduke «*Pedro zara zu*» (*Tu es Pierre*) filma.

Audrey Hepburn, katoliko?

Joan dan urrian estrenatu zan Erroman «*Historia de una monja*» pelikulea. Bertoko protagonista dan Audrey Hepburn an izan zan. Eta egun orretan albiste pozgarri bat zabaldu zan urian: «Audrey Hepburn, Hollywood-eko emakume famadua, katoliko egingo ei da.»

Garagarrillaren (julioren) batean, Suiza-ko klinika baten semetxu bat euki eban. Baiña ume koittadua ilda jaio zan. Jazoera onek min zorrotz bat sortu eban Audrey-ren biotzean. Baiña, oraintsu katoliko egin dan Alec Guinness, zine gizonak, adorea emon eutsan, Jaungoikoaren eskutik etorkona onez eroateko. Alec Guinness bera zan umetxua-ren aitabixi izateko izentatua.

Bere pelikula barria egiteko, gaixotoki askotan lan egin bear izan eban; eta monja katolikoak toki orreetan egiten dabezan sakrifizioak ikusiaz, Jaungoikoaren dei biguna barrenerañio sartu jako. Lengoan Alec Guinness izan zan; atzo Gary Cooper; eta gaur Audrey Hepburn. Ziñeko tresna zarata artean be entzun daiteke Jaungoikoaren deia. Borondatea euki bear zuzena.

(Auxe ekarri dabe Erromako periodikoak, urriaren 14-an. Audrey Hepburn-ek barriz, deklaraziño batzutan ukatu egin dau notizia ori. Ez dakigu gauza segururik. Baiña olako zurrumurrutan, deklaraziño guztiak gorabeera, beti egoten da egia pixka bat.)

Guarrotxena

... GABONALDEKO IPUIÑA

5-garren orrialdetik dator

tia ostutea. Eta gure Tomas, ezer susmau barik, etxean sartu zanean, oeratu eiten, ordulauren bat igaroten itxi eban; Jose sakristanak ekarri eban San Juaneko eieizatik kaiñabera luze bat; Katxu zapatariak ipiñi eutsan egalean poxporo biztu bat, eta oillaskoa lotuta eukan lokarria erre, ta... piaust! an jausi zan egaztia kaleko ioetara. Katxu-k jakepean artu, eta ixillik baiña poz pozik euren zapokeriaz, bakotxa bere etxera joan zan.

Urrengo arratsa eldu zanean, gure jolaskideak zain eta artega egozan, Atxirika etorrenean, zer esango ete eban, asarrerik-edo agertzen ete eban; baiña eldu zanean, «Gabon guztioi» oi eban alaitasunez eta gogaldi onez esan, eta bere betiko icu berezian jazarri zan; eta besteak erabiilen autuan sartu zan.

Etixeratzeko sasoi eldu zanean, Katxuk-eta erdi trabes leio ezagun atara begiratu ebenean, mirariturik beste oillasko bat egoala ikusi eban, bezperakoaren bikotxa antza. Eta bai ba! aurreguneko zirinkeritxua, zitalkeritxua barriztu nai izan eban; eta Barenkale-tik ostera txiki bat egin ondoren, Jose-k ekarri eban San Juanetik barko kaiñabera luzea, eta Katxu-k poxporo biztua puntan jarri; baiña lokarrira eldu ta bat batera, aize izpitxu batek amatau eban. Eta bardin sei-zortzi poxporo geiago bere.

Orduan Jose-k atara eban sakeletik argizai ori kondo bat, eta Katxu-ri emon eutsan, esanaz: «Poxporoak baiño gar sendoagoa egingo jok-eta, ipiñiyok auxe». Baiña alpe-

rrik. Lokarriraiño polito eldu, baiña... Azkenez asperu egin zirean, eta bertan bera itxi eta etxerantza joan zirean.

Baiña orduntxe gure Atxirika-k atara eban leio egaletik bere burua; eta abots zoliaz, baiña bape asarratu barik eta malmuzkeriz, gozo gozo didar egin eutsen: «Zer da, mutillak? Gaur atzo baiño aize gogortxuagoa jakik e...?».

Ori entzun ebenean, arrituta, oso lotsatuta, bakotxak al eban lez, bazterrerik bazter, etxe ormak garbituaz, aidendu zirean.

Baiña, zer jazo zan ba? itaunduko deustazue. Auxe baiño ez: Atxirika zuur eta argia zan-da, euren kiñuetatik-edo laster susmau eban bere adiskideak barriro-bere zer egingo eban; eta sukaldeko auspotxua besapean arturik, polito ostenduta, leio atzean jarri zan; eta argi biztua egazti ingurura eltzen zan bakotxean, putz txiki mee bategaz amatau... ta kittu.

Eta auxe egin artean abestuaz, alai oeratu zan:

*«Atzo ipar aizea,
gaur barriz egoa:
eguenaren ostean
beti barikua.»*

GERNIKA

Belu



Ipuin-barreka

Izen onetxekin agertu da euskerazko ipuin-liburu maitagarri bat. Egille, Aita Felix Bilbao, Arantzazuko Praillea.

Ipuin txorta ori, 1954-garren urtean, Euskaltzaindiak saritu zuan, eta ongi merezita.

Ipuinok 56 dira, Euskaltzaindiak, saritzazeko, gutxienez 50 eskatzen baitzitian. Liburu eder-ederra osatzen dute; 280 orrialde ditu, ta oietatik askotxo, Jose Luis Iriondo (O. F. M.) prailleak dibujaturiko xantu ta xantuxka polit eta egokiz ornituak daude.

Osoki eta gozoki irakurri ditut ipuiok, baita Villasante Aitak ezarri dizkien «Itz-aurre» egoki-egokia ere.

Itzaurre egokia diot, A. Villasantek ederki agertzen eta goraltzatzen baitizkigu liburu orren merituak. Izkerari buruz au dio: «arraia, bizkorra, bizi-bizia ta biurri-antzekoa... Alkar izketan batez be, zelako bizitasuna, eta zelako esacrak erriko berbetearen kolore guztiekaz jantziak».

«Kolore guztiekaz jantziak», bai. Ipuiak irakurtzen asi nintzalarik, idatz-orrien baztertxoetan markatzen asi nintzan olako erri-esacra bitxi eta kuttunenak; baiña... ugariegi zitzaizkidan, lan ortan azkenecragiño jarraitu al izatcko.

Ipuinlari ori, Morgako semea da la dirausku A. Villasantek, eta, arako «txiki-txikitatik ikasi eban berbetea», zein barruraiño sartuta daukan, ondo baiño obeto agiri duala.

Morgako semea. Eta zuzen ere Morga erria (baserri-baserria), Gernika eta Mungia Urien biderditan agertzen da, alegia, Bizkaia-tar bi euskalera diferenteen erdi-erdian; toki berezia, beraz, eskualde bi oietako euskal esakunerik bitxien eta baliozkoenak ikasteko.

Ipuin-liburu orrëk ba-du beste meritu bat ere: «La Vida del Euskera»-ren 22-garren orri-aldean, onako zerbait nion (25 urte pasaiak dira): Sariketa bat egin bear genukeala, euskerazko idazki errez-errezenen alde, bi kondizio oiekin: 1) Idazkiok, edozein euskalki-ako izan ditezkeala; 2) euskalki ortako euskaldun guziek edo geien-geienok (batez ere baserritarrek) aurrez darabilzkien itz eta esakunak baizik ez-tuzketeia agertu.

Orrelako ida k'ak bear-bearreko gemituzke, Euskalerra oscan, euskera ko eskola ugari-ugaririk eztegun artean. Aor bada, eta sariketa ortan Aita Felix-en «Ipuin-Barreka» liburnaki, gorenetariko saria merezi izango luke duda gaberik. Ona emen, nere ustez, liburu orren beste meritu aundi bat.

Altube-k

Liburu barria

IPUIN-BARREKA

Aita Felix Bilbao,
Arantzazuko prailleak egina

Pozez eta alaitasunez beteriko liburu, Bizkaiko erriaren euskera mardula ikustek ta ikasteko aproposa. Berbete jatorra, bizkorra, erreza, bizi-bizia. Liburu merke gainera: 280 orrialde, 35 peseta.

Salgai:

PP. Franciscanos
FORUA (Vizcaya)

